

Matrikula epea: otsailaren 15tik martxoaren 12ra arte

Matrikula inprimakiak eraman beharko dira matrikulatzen duen ikastetxe bakoitzeko idazkaritzara, martxoaren 12a azken eguna izango delarik. Azterketen datak eta matrikula tasak hauexek izango dira:

AZTERKETA	DATAK	TASAK
STARTERS	Zehazteko	46 €
MOVERS	Zehazteko	50 €
FLYERS	Zehazteko	52 €
KET	(Papers 1,2) Ekainaren 5a, larunbata (Paper 3) Maiatzaren 28tik ekainaren 14era	67 €
PET	(Papers 1,2) Ekainaren 5a, larunbata (Papers 3) Maiatzaren 28tik ekainaren 14era	72 €
FCE	(Papers 1,2,3,4) Ekainaren 12a, larunbata (Paper, 5) Maiatzaren 24etik ekainaren 20ra	140 €
CAE	(Papers 1, 2,3,4) Ekainaren 16a, asteazkena (Paper, 5) Maiatzaren 24etik ekainaren 20ra	155 €
CPE	(Papers 1,2,3,4) Ekainaren 17a, osteguna (Paper, 5) Maiatzaren 24etik ekainaren 20ra	165 €
BEC Preliminary	Ekainaren 9a, asteazkena (Ahozkoa zehazteko)	88 €
BEC Vantage	Ekainaren 10a, osteguna (Ahozkoa zehazteko)	137 €
BEC Higher	Ekainaren 8a, asteartea (Ahozkoa zehazteko)	152 €

ES-299 ZENTRO BAIMENDUAREN ARAUAK

- ES-299 Cambridge-ko Unibertsitateak baimendutako Irakaskuntza Arautuarentzako zentro aztertzailea da; beraz, arategi guztia UCLES-ek (Cambridge) ezarritakoa da.
- Aurrekoan esan bezala, matrikula burutu ondoren ez da inongo diru kopururik itzuliko. Gaixotasun kasuetan, eta dagokien osasun-ziurtagiria jaso ondoren, ES-299-k dirua itzultzeko eskaria bideratuko du, UCLES (Cambridge) izanik erabakia hartu behar duen bakarra.
- Zehaztutako ordutegietan ez da inolako aldaketarik egingo, salbuespenik gabe. Horregatik, matrikulatu baino lehen, datak egokiak izango zaizkizuela kontuan har dezazuen eskatzen dizuegu.
- ES-299-k ez ditu bere gain hartuko ordutegiak ez ezagutzearen ondorioz sor daitezkeen arazoak.
- Matrikulatutako guztiek azterketa-proben ordutegi pertsonalizatua postaz jasoko dute (Statement of Entry). Azken hau eta nortasuna adierazteko agiria (EHNA, NAN edo pasaporte) aurkeztea **ezinbestekoa** izango da azterketa egun guztietan. Halaber, emaitzak eskuragarri daudenean, jakinaraziko zaie.
- Emaitzen jakinarazpenak jaso eta sei astetik aurrera norberen ziurtagiriak jasotzeko erantzukizuna kandidatuena izango da.
- Matrikulak dagokion deialdirako soilik balio izango du.

MATRIKULA EGITEKO BALDINTZAK

- ES-299 Zentro Baimenduaren arauak onartzea.
- Inskripzio-orria, behar bezala beteta.
- Matrikulatuen zerrenda agiria, behar bezala beteta (matrikulak batera egiten badira)
- Matrikulatutako ikasle bakoitzaren nortasun agiriaren fotokopia (EHNA, NAN, pasaporte...)
- Bankuko ordain-agiria
- Matrikulak martxoaren 12an bertan presazko korreo bidali beharko dira helbide honetara:
Beatriz Zabaleta
Santa Elena, 12, 1.esk
48280 Lekeitio (Bizkaia)